



Arartekoaren 6/2010 gomendio orokorra, abenduaren 30ekoa Gardentasuna eta agiri publikoak eskuratzeko eskubidea. Bereziki, ingurumen informazioa eskuratzea.

I. Sarrera

Herritar talde ugari ari dira eskatzen informazioa gardenagoa izatea eta gizarte osoan zabaltzea, eta, horren ondorioz, eztabaida pizten ari da gobernuek agiri eta artxibo publikoen gainean duten kontrolaren inguruan eta kontrol horren iluntasun eta ezkutukeria murrizteko beharraren inguruan. Zabalkunde horren arrazoia da gure garaiarekin hobeki datorren modu batean interpretatzen direla hala adierazpen eskubidea eta informaziorako eskubidea nola pertsonak administrazioetan dagoen informazioa eskuratzeko duten eskubidea. Halaber, teknologia berriak eta horiek unibertsal bihurtu izana benetako iraultza ekartzen ari dira jakintza iturriak eskuratzeko, hautatzeko, aztertzeke eta zabaltzeko aukerei dagokienez. Aldaketa prozesu horien etsenplu bat azken urteetan gizarte zibilean sortutako plataformetan hautematen dugu (<http://www.proaccesso.org/>, <http://www.access-info.org/>). Izan ere, plataforma horien bidez, modu aktiboan aldarrikatu da herritarrek jakiteko gogoia dutela, eta zalantzan jarri dira informazioa atxikitzeke murrizketa bidegabeak.

Erakunde ofizialek daukaten informazioa eskuratzeko eta zabaltzeko eskubidearen tradizio juridikoa herrialde anglosaxoietakoko informaziorako eskubideari buruzko legeetan dago. Aurrekaria Suedian sortu zen, XVIII. mendean. Joan den mendean, Ameriketako estatu gehienek arlo horri buruzko arauak onetsi dituzte. Hala, [Amerikako Estatu Batuetako 1966ko Informaziorako Askatasunari buruzko Legea](#) aipatu behar dugu.

Aldiz, latindar tradizioko beste antolamendu juridiko batzuk uzkurragoak izan dira datu publikoen inguruko planteamendu ireki bat egiteko orduan, eta halako datuak eskuratzeko bidea itxi diete administrazio oztopoen jakitun beren beregi hala eskatu izan duten subjektu kualifikatuei. Administrazio publikoen ezkutukeria horren jatorria administrazio burokratikoaren hemeretzigarren mendeko eredia da.

Alabaina, garaiak (eta Zuzenbidea) aldatu egiten dira. Administrazio egiturek gizarte eskaera berrietara egokitu behar dute, hau da, gobernuak irekiagoa izan behar du, tarte ilunak ezabatuta, parte hartzeko eta herritarrekiko harremanetan garden izateko printzipio demokratikoekin bat etorritik.

Kontuan izan behar da informazio hori eskuratzeko eskubidea bermatzea administrazio on bat izateko eskubidearen ondoriozko eskakizuna dela. Aldi berean, informazio publikoa herritarren ondarearen parte da, eta eskubide politikoaren zerbitzura egon behar du, hala nola gai publikoetan parte hartzeko eskubidearen zerbitzura.





Azken batean, printzipio horien alde egiten duen demokrazia aktiboa hurbilagoa da herritarrentzat, parte hartzeko prozesuak laguntzen ditu, bide ematen du kontrol politiko eta instituzional handiagoa izateko eta saihestu egiten du zerbitzu publikoen eraginkortasunik eza, ustelkeria eta halako izurriak.

Bestalde, administrazio publikoek informazioa eskuratzeko eskubidea modu pasiboan baliatzeko bitartekoak jarri baino zerbait gehiago egin behar dute. Administrazioari artxibo eta erregistroetan dagoen informazioaren zabalkunde aktiboa beren eskumeneko funtzio publiko gisa antolatu behar dute gobernuek, publikitate eta gardentasun printzipioak oinarritzat hartuta.

Agiri publikoak eskuratzeko eta zabaltzeko eskubide horiek izan behar dute abiapuntua herritarrekiko harremanetan. Hori hala izanik ere, kasu balioztatu batzuetan egin liteke printzipio horren salbuespena, segurtasun nazionala, pertsonen intimitatearen eta jabetza intelektualaren babesa nahiz delituen prebentzioa eta ikerketa oinarritzat hartuta.

Informazioaren teknologia berriek eta ezagutzak bide ematen dute administrazioen arteko eta herritarrekiko harremanen efizientzia eta eraginkortasuna hobetzeko. Administrazio elektronikoa izatea baliagarria da informazioa era erraz eta soilean eskuratzeko dela bermatzeko; gainera, horri esker, datu publikoak zabaltzeko zerbitzu publiko aktiboaren kalitatean eragin daiteke.

Gomendio honen helburua da garden izateko eta informazio publikoa eskuratzeko aipaturiko printzipioak betetzeari buruzko gogoeta helaraztea euskal administrazio publikoei, batez ere ingurumen informazioari dagokionez. Nahiz eta garai berri hauetan gobernu irekia den, pertsonak eta erakundeak arlo honetan beren eskubideak baliatzeko dituzten arazoak etengabeak direla ikusten dugu eskubideen defentsa erakundeetan.

Hori dela eta, gure antolamenduan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea nola dagoen araututa aztertuko dugu, gai horri buruzko esparru juridiko berri bati dagozkion ikuspegi berriak barne hartuta. Halaber, eskubide hori baliatzearen inguruan egindako jardunak esanguratsuenak erantsiko ditugu, Arartekoaren azken txostenetan jasotakoak denak. Azkenik, gomendio honen helburu nagusia da alderdi horiei buruzko balorazio orokor bat egitea ingurumen informazioaren kasu konkreturako.

II. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gure antolamendu juridikoan

- Gure antolamendu juridikoak informaziorako eskubidea txertatu du [Espainiako Konstituzioan](#). 105 b) artikulua botere publikoen agindu bat barne hartzen du, lege baten bidez arautu dadin herritarrek artxiboak eta erregistroak nola eskuratzeko dituzten.



Oro har, [Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak](#) konstituzioko manu hori garatu du. Alde batetik, 3. artikulua ezartzen du administrazio publikoek garden izateko eta parte hartzeko printzipioekin bat etorri jardun behar dutela herritarrekin dituzten harremanetan. Bestetik, lege horretan bi artikulua arautzen dute informazioa eskuratzeko modua: 35 a) eta h) artikulua eta 37. artikulua. 35 a) artikulua onartzen du interesdunek eskubidea dutela espedienteen izapideak zein egoeratan dauden jakiteko eta kopiak eskuratzeko. 35 h) eta 37. artikuluek administrazio espediente amaituetako parte diren artxiboak eta erregistroak eskuratzeko eskubidea gehitzen dute. Eskubide hori murriztu egiten da, baldin eta agirietan pertsonen intimitateari buruzko datuak badaude edo Estatuaren segurtasunari edo industria sekretuari erasaten badiote. Halaber, zati batez mugatuta geratzen da eskubide hori, baldin eta hirugarren pertsonen datu izendunak agertzen badira, eskatzaileak interes legitimo eta zuzena duela egiaztatu ezean. Manu horrek arautzen duenez, aldizka zabaldu egin behar da administrazioaren esku dauden eta kolektibitateari eragiten dielako edo partikularrek kontsulta ditzaketelako publizitate araubide berezi bati lotuta dauden dokumentuen zerrenda.

Arau horrek ekarri duen aurrerapena gainditu egin dute azken urteetan gardenago izateko egin diren eskariek eta informazioaren gizartean izan diren aldaketa ugariak. Arau hori zalantzan jarri da, mugak dakartzalako interesdunei informazioa eskuratzeko eskubidea soilik prozedura amaituetan onartzeak, eta administrazioei tarte ematen dielako eskubide hori murrizteko, zerbitzuen funtzionamenduarekin bateragarria ez bada.

Lege horren ondotik, informazioa eskuratzeko eskubidearen erregulazioak sektore garapena izan du, besteak beste ingurumenean¹, hirigintzan² eta osasunean³ eragiten duten arauen bidez.

- Informazioa eskuratzeko eskubidearen erregulazio juridikoarekin batera, azken hamarkadan administrazio zientzietan eragin berezia izan du teknologia berrien erabileran oinarritutako herritarrekiko harremanen eredu berri bat bilatzeak. Teknologia berriak eta bide elektronikoak apustu bat dira, administrazio publikoek modua izan dezaten sektore publikoak bide elektronikoetatik lortzen duen informazioa zabaltzeko eta berriro erabiltzeko.

Teknologia horien erabilerari dagokionez, [herritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak](#) barne

¹ [27/2006 Legea, ekainaren 18koa. Horren bidez, ingurumenaren gaitan informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautu dira.](#) 3/1998 Lege Orokorra, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenari buruzkoa.

² [Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuko 4. artikulua.](#) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 9. artikulua.

³ [41/2002 Legea, azaroaren 14koa, Pazientearen, Autonomiari eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoaren Arloko Eskubide eta Betebeharrei dagokiena.](#)



hartu du herritarrek administrazio publikoekin harremanak bide telematikoen bidez izateko duten eskubidea, eta administrazio jardunean informazioaren teknologiak nola erabiliko diren arautzen du, herritarrek beren eskubideak baliaztzeko eta administrazio gardena izateko. Zalantzarik gabe, legeak baliagarria izan behar du erregistro publikoetan dauden datuak eskuratzeko eskubidea eta datu horiek zabaltzeko eginkizun publikoa baliaztzen laguntzeko, errazteko eta arintzeko. Alabaina, nabarmendu behar da arau hori berandu jarri dela martxan —2009ko abenduaren 31tik dago indarrean—, teknika eta aurrekontu aldetik zailtasunak izan baitira helburuak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak, teknologia eta sistemak ezartzeko orduan⁴.

Halaber, [azaroaren 16ko 37/2007 Legea onartu da, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa](#). Horren helburua da sektore publikoko administrazio publikoek eta erakundeek egin eta zaintzen dituzten dokumentuen berrerabilpenari aplikagarri izango zaion araubide juridikoa arautzea.

- Nazioarteko eremuan, beharrezkoa da aipatzea [agiri ofizialak eskuratzeari buruz Europako Kontseiluak egindako Hitzarmena \(Tromsø, 2009ko ekainaren 18a\)](#). [Europako Kontseiluak](#) adierazi du agintaritza publikoen gardentasuna dela gakoa gobernu on bat izateko; estatuen izaera demokratikoaren eta pluralaren adierazlea dela hori, eta, beraz, ustelkeria modu guztien aurkakoa. Halaber, adierazi du agiri ofizialak eskuratzeko eskubidea funtsezkoa dela oinarritzko beste giza eskubide batzuk baliaztzeko, hala nola herritarrek interes publikoko gaietan parte hartzeko eskubidea baliaztzeko.

Nazioarteko itun horrek —Espainiako Estatuak oraindik ez du ez sinatu eta ez berretsi— berekin dakar onartzea herritarrek eskubidea dutela instantzia administratiboetan, legegintzakoetan eta judizialean nahiz eginkizun publikoak egiten dituzten erakunde pribatuetan dauden agiri ofizialak era azkar eta soilean ezagutzeko, soilik interes publikoan oinarritutako eta balioztatutako murrizketa batzuei lotuta, horien artean defentsa nazionala eta pertsonen bizitza pribatua daudela. Halaber, adierazten du administrazio publikoek agiri publikoak zabaltzeko inizatiba izan behar dutela, administrazioa gardena eta eraginkorra izan dadin sustatzeko eta jendeak interes orokorreko gaietan informazioa izanda parte har dezan bultzatzeko. Bestalde, Itunak erreklamatzeko prozedura bat dakar, eskubide hori ukatzen denerako. Prozedura horrek aukera ematen du justizia auzitegietan errekurtsio bat jartzeko, edo errekurtsio azkar eta ekonomiko bat jartzeko legeak ezarritako erakunde inpartzial eta independente batean.

⁴ [Orange-Capgemini Consulting fundazioak autonomia erkidegoetan 11/2007 Legearen aplikazioa](#) zenbatekoa den aztertu du 2010ean. Lan horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan %68koa da aplikazioa, eta estatuko batez bestekoaren azpitik dago, legearen aplikazioa %70ekoa baita estatuan.



- Konstituzioko agindua nazioarteko esparru juridikoan garatzeko helburuarekin, Estatuko Administrazioa [lege aurreproiektu bat egiten ari da gardentasunaren inguruan eta herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidearen inguruan.](#)

Lege proiektu horren abiapuntua honako hau da: informazio publikoa eskuratzeko eskubidea onartzea, gobernu onaren printzipio gisa. Hain zuzen ere, gobernu onak aukera ematen die herritarrei ahal publikoen erabilera ezagutzeko eta zaintzeko, zerbitzu publikoak ematen ditu eta politika publikoak eraginkorrak eta efizienteak izateko bidea ematen du. Gai politikoak kudeatzeari dagokionez, gardentasuna ez da jarri behar herritarren artean informazio eskaria izatearen menpe; aitzitik, modu aktiboan eratu behar da, jarduera publikoaren printzipio gidari gisa.

Lege hori aukera bat da herritarrek erregistro publikoetan dauden agiriak eskuratzeko eta informazioa zabaltzeko duten eskubideetan sakontzeko. Nahiz eta, zalantzarik gabe, informazioa eskuratzeko eskubide unibertsala onartzeak aurrerapen handia ekarriko duen, informazioa eskuratzearen aldeko zenbait plataformak zalantzan jarri dituzte hainbat arlo konkretu, hala nola informazioaren kontzeptua, legegintzako eta justiziako informazioa eskuratzeko murrizketa eta erantzuteko epea luzeegia izatea.

III. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea Arartekoaren lanean

- Erakunde honen lanean etengabe aipatzen dira erreklamatzailiek egindako salaketak eta kexak, administrazio erregistroetako eta espedienteetako informazioa eskuratzeko arazoak izan dituztela eta.

Onargarria da herritarren defentsa erakundeei arlo horretan urratutako eskubideak zuzen daitezela erreklamatzeko aukera izatea, zailtasunak izan baitaitezke beste kontrol juridikzional batzuk egiteko. Agiri publikoak eskuratzeko modua arautu duten estatu gehienek agentzia edo mandatari espezifiko bat eratzea aurreikusi dute, ukapenak edo erantzunik eza berrikusteko.

Informazioa eskuratzeari dagokionez, administrazioaren erantzuna berehalakoa izatea funtsezko premisa da parte hartzeko gainerako eskubideak baliatu ahal izateko. Halaber, funtsezkoa da gobernu organoaren ikuskatze lana azkarra izatea. Administrazio publikoak kontrolatzeko agindu orokorraren barruan, pertsonen eskubideak aldezteko gainerako mandatari parlamentarioekin batera jarduten du lan horretan Arartekoak.

- Herritarrek planteatzen dizkiguten zailtasunak honako hauek dira, batez ere: atzerapena, erantzunik eza eta bidalitako informazioaren kalitate gabezia. Beste kasu batzuetan, kexetan zalantzan jartzen dira informazioa ukatzeko ematen diren arrazoiak, hala nola datu pertsonalak edo jabetza intelektuala babestu



beharra. Erreklamazio hauek, batez ere, ingurumenari eta hirigintzari eragiten diete, eta, neurri txikiagoan, tokiko eremuko gaiei.

Administrazioek emandako justifikazioa askotan izaten da administrazioek, batez ere udal administrazioek, baliabide material edo pertsonalak falta dituztela, eta ez dutela informazio eskabideei erantzuteko zerbitzu propiorik, azkar erreakzionatzeko modua ematen dienik. Bestalde, adierazi behar da administrazioek trabak jartzen dituztelako murrizten direla behin baino gehiagotan informazio eskabideak; izan ere, pertsona edo talde jakin batzuei informazioa eskura dezaten galarazten saiatzen dira, eta beren erabakiei buruzko azalpenik ez ematen eta kritika edo herritarren kontrola itzurtzen saiatzen dira.

Hori dela eta, arartekoak hainbat ebazpen eman ditu kasu konkretu batzuen inguruan. Beraz, komeni da jardun horiek beren beregi aipatzea.

- Egoera batzuetan, jabetza intelektualaren legeriak hirigintza espedienteak eskuratzeko zer muga ezartzen dituen aztertu dugu. Halakoak dira [Arartekoaren 2008ko martxoaren 28ko ebazpena, Ortuellako Udalari zuzendutakoa, hirigintza espediente bat eskuratzeko eskabideari erantzun arrazoiturik ez ziola eman ondorioztatzen duena](#), eta [Arartekoaren 2009ko uztailaren 2ko ebazpena, Abanto-Zierbenako Udalaren proiektu bati buruzko informazio jakin bat eskuratzeko ezintasunari buruzkoa](#).
- Beste ebazpen batean, udal bati gogorarazi genion hirigintza informazioa eskuratzeko ez dela beharrezkoa interes berezi bat egiaztatzea, eta soilik legerian balioztatutako kasuetan mugatu daitekeela, dagokion ebazpen arrazoituaren bidez. [Arartekoaren 2008ko abenduaren 2ko ebazpena, Bakioko Udalari zuzendutakoa, Bakioko plangintzaren Arau Subsidiarioak aldatzeko egindako jardunari buruzkoa](#).
- Berrikiago, beste ebazpen batzuetan, araudian ezarritako hilabeteko epea nabarmen gainditzen duen epe batean ez erantzutearen arazoa planteatu da. 2010eko abenduko Ebazpenean, Ingurumen Sailari eta Uraren Euskal Agentziari zuzendutakoan, ondorioztatu da esku hartu behar dugula, ingurumen informazioari buruzko bi eskabideri erantzun ez zaiela eta.
- Garrantzi berezia du tokiko eremuan herritarrak informatzeko eta parte hartzeko egin genuen gomendio orokorrak, [Legebiltzarrari aurkeztu genion 2005. urteko txostenean](#) sartutakoak. Ebazpen horretan, udal administrazioei gomendatu genien egin zezatela gogoeta sakon bat informazio politika gardenago eta eraginkorrago baten inguruan, eta hornitu zezatela informazio zerbitzu osoago batez, informaziorako eskubidea bermatzeko moduan. Administrazioak eskabideei heltzeko abiapuntutzat hartu behar duen premisak baikorra izan behar du beti; hala ere, hori ez da eragozpen izango uki litezkeen hirugarrenen eskubideak edo ordena publikoa kontuan hartzeko. Informazioaren arloko hobekuntza horrek kontuan hartu beharko lituzke teknologia berriak, baina



informazioa eskuratzeko bide tradizionalak, hala nola iragarki taulak eta herritarrei arreta emateko bulegoak ahaztu gabe.

Arlo honetan egindako jardunen eta eskubide hori aintzatesteko egindako lanaren adibide bat dira jardun horiek.

- Ondorioztatu behar da Arartekoak, izan daitezkeen eskubide urraketak kontrolatzeko agintaritza independente gisa dituen eginkizunen esparruan, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea zaintzen duela.

Erreklamazioen kudeaketa hobetzen saiatzeko helburuarekin, eskubide hori ondo babesteko dela bermatzeko, erakunde honek dagozkion bideak ezarriko ditu, arlo honi erreferentzia egiten dioten erreklamazioak laburki tratatzeko. Halaber, konpromisoa hartzen du euskal botere publikoen esku eta kontrolpean dauden datu publikoak zabaltzeko zerbitzuak nola funtzionatzen duen aztertzeko eta herritarren artean eskubide hori balia dadin sustatzeko.

IV. Aztertzeko kasu bat: Gardentasuna eta ingurumen informazioa eskuratzeko eskubidea

Gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea zaintzeko joera berriei buruzko aurrekari azaleko batzuk azaldu ostean, komeni da eten bat egitea gai honek lege eta gizarte aldetik aintzatespen handiagoa izan duen arlo batean, alegia, ingurumenaren arloan.

Ingurumena eta berau zaintzeko eta babesteko eskubidea ondare juridiko bat dira, kutsaduraren ingurumen kontrola, garapen iraunkorra, biodibertsitatearen babesa, osasun publikoa eta antzeko helburuak lortzeko interes publikoa dutenak abiapuntu gisa. Garden izateko eta parte hartzeko beharra nabarmenagoa den arlorik bada, hain zuzen ere ingurumenaren arloa da hori. Gizarte zibilak —pertsonak, plataformak eta elkarteak— modu aktiboan aldarrikatu du beharrezkoa dela jakitea eta ezagutzea ingurumenaren egoera zein den, gure munduak zer arrisku dituen eta garapen iraunkorra sendotzeko politika publikoak zein diren.

Arlo horren lege garapen espezifiko baliagarria izan da ingurumen informazioa eskuratzeko eskubidea esparru juridiko propio batez hornitzeko. Lege garapen horretan, garrantzi berezia dute nazioarteko eta erkidegoko erakundeek.

- Arlo honetan emandako lehen pausoa [Kontseiluaren ekainaren 7ko 90/313/EEE Zuzentaraua](#) izan zen. Arau erkide horren planteamendua hauxe sustatzea zen: edozein pertsonak eskuratu ahal izatea agintaritza publikoen esku dagoen ingurumenari buruzko informazioa, betiere ingurumenaren egoerari buruzkoa, ingurumenari modu txarrean eragiten dioten edo eragin diezaioketen jardun edo neurriei buruzkoa eta ingurumena babesteko jardun edo neurriei buruzkoa bada. Zuzentaraua abenduaren [12ko 38/1995 Legearen](#) bitartez gainjarri zen. Lege horrek —jadanik indargabetuta dago— ingurumenaren egoerari buruzko



informazio erabilgarria aldizka zabaltzeko betebeharra ekarri zuen. Orobat, edozein pertsonak informazio hori eskuratzeko eskubide subjektiboa aintzatestea ekarri zuen, interesduna izateko beharrik gabe eta espedientea amaitu arte itxaroteko beharrik izan gabe.

Gerora, garrantzi berezia izan du ingurumenaren gaian informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko hitzarmenak, [Aarhusko Hitzarmena](#) deiturikoak. Arau horrek nazioarteko esparru juridiko bat ezartzen du hitzarmenaren hiru oinarriak bermatzeko beharrezkoak diren elementuekin. Lehen oinarria, ingurumen informazio eskuratzea, funtsezkoa da ingurumen hezkuntza izateko eta gai publikoetan jakinaren gainean esku hartu ahal izateko.

Nazioarteko tresna juridiko honek bide eman du beste arau batzuk garatzeko hala Europar Batasunaren esparruan, [herritarrek ingurumen informazioa eskuratzeko Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2003ko urtarrilaren 28ko 2003/4/EE Zuzentarauaren](#) bidez, nola Estatuan, [ingurumenaren gaian informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko ekainaren 18ko 27/2006 Legearen](#) bidez.

- 27/2006 Legeak ingurumen informazioa eskuratzeko eskubidea arautzen du, bi ikuspegitatik, aktibotik eta pasibotik. Batetik, teknologia berriak erabilia ingurumen informazioa modu aktibo eta sistematikoan zabaltzeko zerbitzu publikoa pixkanaka ezartzeko betebeharra planteatzen da. Zerbitzu horrek honako informazio hau izan beharko du, modu eguneratuan: aplikatzekoa den legeriari buruzko informazioa, politika publikoak, ingurumenaren egoerari buruzko urteko informazioa, jarduera sailkatuen jarraipenari buruzko datuak, ingurumenean ondore esanguratsuak dituzten baimenei buruzko datuak nahiz ingurumen eraginari buruzko azterlanak eta ingurumen elementuen gaineko arriskuaren ebaluazioa (airea, ura, lurzorua, paisaia eta naturguneak).

Beste alderdia da ingurumen informazioa eskuratzea, aurretik hala eskatuta, interes jakin bat egiaztatzeko beharrik izan gabe. Administrazioak herritarrek dituzten eskubideen inguruko informazioa eman behar du, eta informazioa bilatzen lagundu behar du. Prozedurari dagokionez, eskabideetako eskakizun formalak erraztea, eskabidea zehaztugabea bada eskabidea hobetzea eta administrazio eskudunari bidaltzea arautzen du eta erantzuteko epea hilabetera murrizten du. Eskabidea ukatzeko, Legean bertan ezarritako arrazoiak adierazi eta horietan oinarritu behar da, hala nola eskabidea ez dela arrazoizkoa, orokorregia dela, datuak amaitugabeen edo barne komunikazioen gainekoak direla. Bestalde, posible da ukatzea, hala badagokio zati batez, baldin eta eskabideak modu txarrean eragin badiezaioke lege batean aurreikusitako konfidentzialtasunari, segurtasun nazionalari, izapidetzen ari diren prozedura judizialei edo hirugarrenen eskubideei (datu pertsonalak, jabetza intelektuala eta merkataritzako eta industriako sekretua).





- Euskal Autonomia Erkidegoa izan zen ingurumenaren arloko legea egiten lehenetako bat, [Ingurumenari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren](#) bidez. Arau horrek informazioa eskuratzeko eskubidearen oinarritzko elementu guztiak biltzen ditu: Jendeak aukera izatea informazioa eskuratzeko interes berezirik egiaztatu gabe, epe labur batean erantzun behar izatea eta balioztatutako kausei loturik ukatzea.
- ***Ingurumen informazioa eskuratzeko eta informazio gardena izateko eskubideak oinarritzat dauzkan printzipioak***
 - * Azaldutako araudia ikusirik, arlo honetan interesekoak diren hainbat ebazpen judizialekin bat etorritik, informazioa eskuratzeko eskubidearen edukiak kontuan hartu behar ditu printzipio hauek:
 - Unibertsaltasuna. Agiriak eskuratzeko eskubidea baliatzea unibertsala da. Edozein pertsona fisiko edo juridikok planteatu dezake, eta ez da beharrezkoa inongo interesik alegatzea, ez eta arrazoiak justifikatzea ere, eskubide hori baliatzeko.
 - Azkartasuna. Informazioa azkar eta lehenetsunez eskuratu edo bidali behar da. Ingurumen legediak hilabetetik beherako epea ezarri du ebazteko, erantzuna emateaz arduratuko den erregistroak eskabidea jasotzen dutenetik aurrera, non eta ez den beren beregi hilabete bateko beste luzapen ezartzen.
 - Erraztasuna. Eskubide hori baliatzeko formalitateek diren gutxienak izan behar dute (izen bat, posta helbide bat edo helbide elektronikoa bat eta eskatutako informazioaren xedeari azalpen bat). Informazioa eskatu den moduan eskuratu behar da. Ahal dela, administrazioak bide elektronikoen bitartez emango du informazioa.
 - Doakotasuna. Agiriak doan eskuratuko dira, posta elektronikoa bidez nahiz bulego publikoetan. Herritarrei arreta emateko bulegoek ordutegi egokia izan behar dute eskubide hori baliatzeko, zerbitzuaren beharrei kalterik egin gabe. Kopiarik emanez gero eta hainbat formatutara aldatuz gero, tasa bat kobratu ahal da zerbitzua emateagatik, betiere dagokion xedapenean hala jasota badago; tasa hori ez da izango inola ere kostu errealetatik gorakoa.
 - Laguntza. Informazio zerbitzuak eskubideez eta horiek baliatzeko moduez informatu behar du. Hala, eskatzaileari informazioa bilatzen lagundu behar dio. Eskubidearen helburua zehaztu gabe badago, epe bat eman behar da eskabidea zehazteko, [30/1992 Legeko](#) 71. artikuluan jasotako aurreikuspenekin bat etorritik. Eskabidea eskuduna ez den administrazio bati egiten bazaio, hark ofizioz igorriko dio informazio hori eduki dezakeen administrazioari, eta eskatzaileari horren berri emango dio.





- Publizitatea. Printzipioz, administrazioaren esku dagoen informazio oro publikoa da. Administrazioak bere esku duen informazioari buruzko katalogoak izan behar ditu.
 - Gardentasuna. Administrazio publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituzte beren esku modu sistematiko eta eskuragarrian daukaten eta hirugarren pertsonak berrerabiltzeko modukoa den dokumentazio guztia modu aktiboan zabalduko dela bermatzeko.
 - Murrizketa. Eskubide hau ukatzeko, arrazoi balioztatueta oinarritu behar da. Arrazoi horiek modu murriztailean interpretatu behar dira. Eskubidea ukatzen bada, ebazpenak behar beste arrazoituta egon behar du, kasu konkretu horretan ukatzeko arrazoiak neurtuta.
 - Administrazio eta erakunde kontrola. Eskubidea erabat edo zati batez ukatzen duten ebazpenak edo erantzunik eza errekurritu daitezke administrazio bidean, administrazioarekiko auzietan edo dagokion herriaren defentsa erakundeetan. Erreklamazio horien gaineko ebazpenak laburrak behar dute izan, azkar eskuratzea funtsezkoa baita oinarritzeko beste eskubide batzuk baliatzeko.
- * Analisi xeheagoa merezi du eskatutako informazioa ukatzeko kausei buruzko kapituluak. Murrizteko arrazoiak formalak izan daitezke, edo hirugarrenen eskubideak edo ordena publikoa aldezteko justifikazioa izan dezakete
- Irizpide formalak. Eskabide bat tramiterako ez onartzeko arrazoiak justifikatuta egon daitezke, baldin eta datu amaitugabeak edo barne komunikazio hutsak eskatzen badira, eskabidea orokorra bada, datuak lantzea eskatzen badu edo arrazoizkoa ez bada.
 - o Ingurumenari buruzko datu amaitugabeak edo barne komunikaziokoak direlako ukatzea. Administrazioa modu aktiboan lantzen ari den dokumentu konkretuak dira. Ez dira izapidetzen ari diren administrazio espedienteak, baizik eta lantzen ari diren dokumentuak edo txostenak. Kasu horretan, egokia da aipatzea Auzitegi Gorenaren 2003ko urriaren 28ko epaia —RJ 2003\7865—. Horren bidez, bidegabetzat jo zen baliabide natural batzuk antolatzeke izapidetzen ari zen plan baten inguruko informazioa eskuratzeko eskabidea ukatzea. Epaia horren arabera, jardun hori egiazkoa da eta existitzen da, eta ez da dokumentu amaitugabe bat edo oraindik egin gabeko proposamen bat.

Interesgarria da, halaber, Auzitegi Gorenaren 2004ko otsailaren 17ko Epaia —RJ 2004/2226—. Horren bidez, bidegabetzat jo zen igorpen kutsatzaile baten inguruko ikuskapen aktak ukatzea. Aktak ez dira dokumentu amaitugabeak; behin egindakoan, informazio eskuragarria dira, horiek egiteko jarraitu beharreko izapidea edozein delarik ere.





Legediak baztertu egiten du barne komunikazioak eskuratu ahal izatea, administrazio espedientearen parte ez diren neurrian eta zirriborroak edo ohar lagungarri hutsak diren neurrian.

- Eskabide orokorrak direlako edo informazioa zehaztu gabe dagoelako ukatzea. Informazioa eskuratzeko, helburu jakin bat adierazi behar da. Informazio orokorra zehazteko, administrazioak eska dezake eskabidea zuzentzeko, edo bere esku daukan eta erreklamatzailerak adierazitako interesari erantzuten dion dokumentazioa bidal dezake. Ez da ahaztu behar administrazioak erraztu egin behar duela eskabidea antolatzea —[30/1992 Legeko](#) 35. artikulua—, bere esku daukan informazioaren berri emanda edo horren inguruan dauden administrazio espedienteen erreferentzia emanda.

Orokorra izateak gai baten inguruan dagoen informazio guztiari egiten dio erreferentzia (esate baterako, udalerrri bateko jarduera lizentzia guztiei buruzko informazioa). Administrazioak informazioa emateko argudia dezakeen arazoa ez da informazio horren bolumena, publikoa baita, baizik eta ez dela zehaztu jarduera konkreturik eta erreferentzia zehatza ematea falta dela.

- Nabarmenki abusuzkoa delako edo arrazoizkoa ez delako ukatzea eskabidea. Aldizkako eta etorkizuneko datuak eskuratzeko eskabideak dira. Auzitegi Gorenaren 2006ko apirilaren 4ko epaian ezarri da eskabide iraunkorrak eta aldizka lantzen diren datuen gainekoak ingurumen informazioa aldizka zabaltzeko ezarritako baldintza berberetan izapidetu eta erantzun behar direla.

Eskubidearen abusuzko erabilera planteatu liteke informazioa eskuratzearen xedea administrazioaren funtzionamenduari kalte egitea denean. Irizpide hori oso modu murriztailean interpretatu behar da; izan ere, administrazioak informazioa badu, zabaltzeko betebeharra ere badu. Ikuspegi horretatik, ez da zilegi abusuzko emaitza alegatzea. Administrazioak informazio hori zabaldu badu, aurretik nola eskura dezakeen jakinaraziko dio eskatzaileari, eta, hala egiten ez badu, dokumentazio hori eman beharko dio. Salbuespen horiek interpretatzeko, teknologia berriek dokumentazio mardulena eskuratzeko aukera ematen dutela hartu behar da abiapuntutzat.

Alde horretatik, administrazioarekiko auzien Bilboko 4. zenbakiko Epaitegiak martxoaren 3an emandako 74/2006 Epaia aipatu behar dugu —JUR 2006/210115—. Lurzoru urbanizaezin batean azken bost urteetan emandako hirigintza lizentziei buruzko informazio eskabide batez ari delarik, Epaitegiak uste du ez dela abusuzko eskabidea; izan ere, epealdi jakin bat zehaztu da, eta lizentziak hain ugari ez diren lurzoru mota bati buruzkoa da eskabidea.





- Estatistika datuak sortzea edo *ex novo* egitea. Administrazioari ezin zaio exijitu bere eskumenekoak ez diren azterlanak edo banakatzeak egitea. Kasu honetan, muga, berriro ere, ingurumen gaiak zabaltzeko eta aztertzeko betebeharretan aurkituko dugu. Halaber, eskatzeko eskubideak bide ematen dio herritarrari datu horiek trata daitezzen eskatzeko. (Ikus Valentziako Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 1067/2004 Epaia, abenduaren 23koa —RJCA 2005/10—).
- * Informazio eskubideak erabat edo zati batez uka daitezke, baldin eta informazio horrek hirugarren pertsonen eskubideak urra ditzaketen datuak agertzea badakar edo, Legearen kariaz, ordena publikoaren aurkakoa bada.
- Datu pertsonalen babesa eta intimitaterako eskubidea. [Datu Pertsonalak Babesteko urriaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko](#) 10. artikuluan jasotako aurreikuspenekin bat etorritik datu pertsonalen titularrak baimena emateko betebeharra izateak, praktikan, murrizketa handi bat ezartzen du ingurumen eta hirigintza datuak eskuratzeko orduan, oro har pertsona fisikoen datu izendunak agertzen baitira. Arlo honetan, ingurumen legeria 30/1992 Legeko 37. artikulua murriztaileagoa izan daiteke; izan ere, azken horrek uzten du eskuratzen espediente amaituetan agertzen diren datu pertsonalak, betiere interes zuzen bat badela justifikatzen bada.

Gure ustez, irizpide neurritsuagoa da gardentasunari buruzko legearen aurreproiektuak dakarrena, datu pertsonalak eta datu intimoak bereiztea proposatzen baitu. Intimotzat jotzen ez diren edo bizitza pribatuari erasaten ez dioten datuak laga ahalko dira, aurretik titularrak baimenik eman gabe. Aldiz, ukatu egingo dira intimitateari erasaten dioten datuak —kasu honetan ideologia, afiliazio sindikal, erlijio, sinesmen, arraza jatorri, osasun eta sexualitateari buruzko datuak—, horretarako berariazko baimenik izan ezean.

Adierazi behar da datu pertsonalak babesteko legedia ez zaiela aplikatzen pertsona juridikoei. Orobat, ez da araudi horretara jo behar, datu pertsonalak publikoak eta oso ezagunak direnean, hala nola erakunde publikoetako ordezkarien izenen kasuan.

Baldin eta pertsona fisikoei buruzko datu horiek ematea legediaren arabera ez bada, dokumentazioa zatika eman behar da, datu pertsonalak bereizita.

- Jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak. Egile eskubideek informazioa eskuratzeko eta proiektu eta azterlan jakin batzuen kopiak lortzeko murrizketak ekar ditzakete, [Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina](#) onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako eran. Murrizketa horri dagokionez, garrantzitsua da adieraztea 31 bis artikulua ezarritakoaren





arabera ez dela egilearen baimenik behar obra bat publikoki erreproduzitu, banatu edo jakinarazteko, baldin eta segurtasun publikoaren xedeekin egiten bada edo prozedura administratibo, judizial edo parlamentarioak behar bezala garatzeko egiten bada. Halaber, egilearen berariazko baimena beharko da. Baimen hori kontratazio publikoaren kasuetarako ezarritako administrazio klausulen bidez lortu beharko da, egilearen eskubide moralei kalterik egin gabe.

- Prozedura judizialean dagoen edo auzitegietan izapidetzen ari den informazioa, benetako tutoretza judizialaren eskubideari edo zigorraren nahiz diziplinaren arloko ikerketa egiteko ahalmenari loturikoa.
- Beste arrazoi publiko batzuk, hala nola nazioarteko harremanak, defentsa nazionala eta segurtasun publikoa.

V. Gomendioak

- Garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzak —Estatuko oinarrizko legedia abiapuntutzat hartuta— lege bat proposatzea Euskal Autonomia Erkidegoan informazio publikoaren gardentasuna eta eskuratzeko modua arautzeko. Lege horrek erregistro eta artxibo publikoak modu irekian eskuratu ahal izatea bermatu behar du.

Azken urteotan euskal administrazio publikoak erregistro eta dokumentu publikoak modu irekian eskuratu ahal izateko egiten ari diren ahaleginak bide eman behar dio esparru juridiko propio bati. Arau horretan, euskal administrazio publikoen betebeharrak ezarri beharko dira informazio publiko erabilgarri oro banatu eta zabalduko duen zerbitzu publiko bat sortzeko, betiere hirugarrenen beste eskubide batzuek edo ordena publikoak ekarritako murrizketak baizik ez badira. Halaber, pertsonak espediente eta erregistro guztiak eskuratzeko duten eskubidea arautu beharko du, gomendio honetan sartu diren eta Tromsøko agiri ofizialak eskuratzeari buruzko Europaren Kontseiluaren Hitzarmenetik datozen printzipioekin bat etorritik.

- Eusko Jaurlaritzak Aarhusko Hitzarmenak, 2003/4/EE Zuzentarauak eta uztailaren 18ko 27/2006 Legeak dakartzan eskakizunetara egokitu behar du Ingurumenari buruzko maiatzaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra. Halaber, legeak barne hartu behar ditu informazio publikoa eskuratzeko eta garden izateko lehen aipaturiko printzipioak.
- Udal ordenantzak. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek informazioa, batez ere ingurumenari buruzkoa, eskuratzeko eta zabaltzeko ordenantzak onartzea sustatu beharko dute. Horretarako, hala Eusko Jaurlaritzak nola foru aldundiek eta Eudel euskal udalerrien elkarteak beharrezko laguntza teknikoa emateko eta gisa horretako ordenantzak idazteko lana sustatuko dute.





- Euskal administrazio publikoek behar beste baliabide izan behar dituzte legedi horren ondoriozko betebeharrak betetzeko. Bereziki, tokiko administrazioek ahalegina egin behar dute informazio zerbitzu bat edo arduradun bat ezartzeko, aurkeztutako eskabideei dagokien izapidea egiteko. Baldin eta ez badute baliabide propiorik, beharrezko zerbitzuak kontratatu beharko dituzte funtzio publiko hori betetzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren ingurumenerako informazio eta gardentasun zerbitzuak —dagozkion foru eta udal zerbitzuekin koordinatuta— bermatu behar du Internet bidez zabalduko duela, modu eguneratuan, 27/2006 Legeko 7. artikuluan jasotako informazio guztia.

Webgune horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren egoerari buruzko informazio publiko guztia jasoko da, eguneratuta, izan propioa edo beste administrazio batzuetatik hartua, erraz ulertzeko moduko formatu batean, airearen, uraren eta lurzorua kalitateari erreferentzia eginda.

Bereziki, udalekin eta foru aldundiekin koordinatuta, Eusko Jaurlaritzak informazio osatua izan beharko du autonomia erkidegoan ingurumen kontrolaren pean dauden jarduera guztien inguruan. Informazio horren barruan sartuko da jarduera sailkatuen lizentzia edo jakinarazpena, eta, hala badagokio, ingurumen baimen integratua eta/edo ingurumen eraginari buruzko adierazpena. Halaber, informazio hau izango du jarduera bakoitzaren inguruan: ingurumenari dakarkion kutsadura, ezarritako neurri zuzentzaileak eta atmosferara igortzeko baimenei buruzko informazioa, jabari publiko hidraulikora edo itsas-lehortarrera egindako isuriak, kutsadura akustikoa eta hondakinen sorkuntza eta tratamendua.

Halaber, ingurumen baimenik gabe edo baimena izapidetzen ari dela martxan dauden jardueren berri emango da.

- Ingurumen informazioa modu unibertsal, azkar, erraz eta doakoan eskuratu behar da. Pertsona guztiek balia dezakete eskubide hori, arrazoia justifikatu gabe, modu errazean, hilabetetik gorakoa ez den epe baten barruan. Teknologia berriak erabilia, euskal administrazio publikoek epe hori 15 egun baliodunetara murrizteko aukera balioetsiko dute. Betebehar hori modu sistematikoan betetzen ez bada, diziplina ondoreak ekarri ahalko ditu izapideak atzeratzearen erantzulearentzat. Halaber, informazioa doan eskuratuko da; dena dela, hori ez da eragozpen izango kopiak eskatzen badira tasa bat kobratu ahal izateko. Euskal administrazio publikoek hobariak ezarri behar dituzte prozeduretan publiko interesdun gisa agertzen diren elkarteentzat. Halaber, tasa ordaintzetik salbuetsi beharko litzateke, baldin eta kopia gutxi batzuk eman badira edo informazioa bide telematikoetatik bidali bada.

